

Eukene Larrarte, pista eta errepidea bateratuz





AURKIBIDEA

Iritzia

Arrate Iturbe **3**

Elkarriketa

Irati Ayerzaren
begirada amatasunari **4-8**

Asteko Gaia

Eukene Larrarte,
Munduko Txapelketa begiz jota **10-19**

Olerkia

Silvia eta Carmen Mateo **21**

Agenda 22-24

Erreportajea

'Opil eta muxilen binetak'
ikusgai, Iruran **26-29**



Azaleko irudia
Imanol Garcia Landa

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana euskaraz

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.





ARRATE ITURBE
ARNASTEN
IKASTEN

Sutara!

Udako solstizio edo ekinozio eguna dugu egunotan, tartean sorginkeriaz eta magiaz beteriko egun eguzkitsu bero eta luzeak.

Euskaldunontzat garrantzi handikoa izan da, Eguzkiak bere ibilbide gorena hartuko du, zeruko gaina ukitzerainokoa, hortik omen dator hilabetearen izena (Eki + gaina = ekaina).

Jaietan jai izan beharko luke, naturaren indarra, ama-lurrak bere osotasunean duen emankortasun guztia borborrean dagoen momentua, animalia, basapizti eta hegaztiak txioka gure inguruko txoko guztiak alaituz dabiltzan honetan. Erritualak pisuzko elementu izan ohi dira data hauetan, lurraren ziklo eta erritmora bizi ginenean batez ere, orain bada berreskuratzeko intentzio eta gogo bizia jendartean.

Erritualak natura gurtu eta uzta oparoak izateko izaten ziren eta dira gaurdaino. Kristautasunak ere bereganatu zuen San Joanen izenean, deabru eta sorgin gaiztoen aitzakian zigortu eta inkisizioarenugarretan ere erailak izan zirenak badira, baina ez dute lortu erritu zahar eta magia desagertzea.

Gure herenamona, birramona, amona eta aurreko belaunaldien izenean berreskura ditzagun magia sortzen duten erritual horiek.

Etxeetako ate edo leihoetan lizar adarra jarriko dugu etxeko kide guztiok babes gaitzan. Sua piztu, Ekiren omenez eta garbi gaitzala gaitz guztietatik, egin salto, dantza suaren inguruan, egin dezagun irrintzi lagunartean... Zerbait ahaztu edo urrundu nahi badugu, paper batean idatzi eta bota sutara! Hau esaten omen da: «Txarrak eraman eta onak ekarri!».

«Gure herenamona, birramona, amona eta aurreko belaunaldien izenean berreskura ditzagun magia sortzen duten erritual horiek»

24ko egunsentia argitzean erreketako edo iturrietako ura jaso, indartzeko eta sendatzeko balio omen du eta goizean bertan oinutsik zelai eta larreetan ibili ihintza denean! Osasuntsu egoteko urte guztian!

Berreskura ditzagun naturari lotutako erritualak! Egin dezagun dantza bizitzan! Eta Sutara behar eta nahi ez dugun guztia!

«Emakume guztiek merezi dute beraien amatasuna ondo gogoratzea gero»

IRATI AYERZA
ARGAZKILARIA

Semeen haurtzaroa dokumentatu nahian hasi eta argazkigintzatik bizi da egun Ayerza; begiekin irudia ikusi eta argazkia egiten die, keinu txiki bat, emozio jakin bat, argi berezi bat betirako jasoz.

Irati Saizar Artola Ibarra

Argazki kamera eskuetan hartu eta istorioak iruditan izozten saiatzen da Irati Ayerza (Ibarra, 1983) argazkilaria. Ama izan ondotik amatasunaren errealtatea argazki bidez jasotzen du eta familia argazkiak egiten ere gozatu egiten du.

Ikasketez kazetaria eta ofizioz argazkilaria. Zein helbururekin hasi zenituen ikasketak?

Txiki-txikitatik gustatzen zitzaidan kazetaritza. Nire helburu nagusia jendearen istorioak kontatzea izan da, horregatik hasi nintzen kazetaritzako ikasketak egiten, Leioan. Jendearekin harremanak edukitzea asko gustatzen zait eta horixe zen nire helburua. Oraintxe bertan argazkilaritzan nabil, eta uste dut helburua berdina dela. Kasu honetan, irudiarekin, baina jendearen istorioak eta testigantzak jasotzen ditut, hurrengo urteetan oroitzapen horiek izateko.

Eta nola iritsi zara argazkilari izatera?

Argazkilaritzan bigarren semea eduki nuenean hasi nintzen, nire semeen haurtzaroa dokumentatuta jaso



nahi nuen eta nire amatasuneko dokumentu grafiko batzuk ere nahi nituen. Pixkana kamera hartzen hasi nintzen, eta konturatu nintzen asko gustatzen zitzaidala, eta gehiago sakondu nahi nuela. Zerbait profesionalagoa nahi nuen. Liburu asko irakurri ditut, beste argazkilari batzuen lanak ikusiz ere ikasi dut, eta teknikoagoak diren kurtsoak egin ditut. Baina kamera beti prest izan eta begiratuta ikasi dut gehien.

Noiz hartu zenuen lehen kamera eskuetan?

Txikitatik erabili dut kamera, baina lehen aldiz, modu serioagoan, 2017 inguruan hartu nuen. Ordutik gauza ezberdinak probatzen ibili naiz. Batetik, pixka bat dokumentalagoa diren argazkiak egiten ditut, egunero koan bizi ditugun momentuak, etxean, esaterako. Izan ere, beti pentsatzen dugu argazki batek beti polita eta estetikoki prestatutako zerbait izan behar duela, baina askotan argazki hoberenak egunerokotasun horretan lortzen ditugu, benetan gure bizitza horiek kontatzen dutelako. Hor hasi nintzen argazkiak ateratzen. Eta gerora zabaltzen naiz beste esparruetara. Moda, adibidez, asko gustatzen zait. Istorioak ere asko gustatzen zaizkit, baina ez bakarrik jendearen istorioak, baizik eta zerbait sormenezkoagoa dena muntatzea, gero argazkiak egiteko.

Sormena behar-beharrezkoa da argazkigintzan?

Niretzat behintzat bai. Eta nik uste argazkilaritzan lan egiten dugun gehienok puntu hori badaukagula, nahiz eta argazki dokumentalak soilik egiten dituztenak egon. Hor ere beti daukazu sormenarekin eta estetikarekin zerikusia duen puntu bat.

Argazkiak momentua jasotzen du. Momentu bakoitzaren atzean istorio asko daude?

Niri agian zerbaitek arreta deitu dit: keinu txiki batek, emozio batek, kolore batek, argi batek. Horrek zerbait esan dit. Nik gero hori familiei, markei helarazten diedanean esaten didate, esaterako, haurra den bezala harrapatu dudala, edo egun horretan triste zegoela eta asko nabarmentzen zaiola tristura hori. Askotan, egunerokotasuneko erritmoak ez digu uzten hori ikusten. Hor gelditzea, eta gero hori argazkietan islatuta geratzea da niri gehien gustatzen zaidana.



Boboli arropa markarako euskal bizikletekin egindako saioa. **IRATI AYERZA**

Irudi izoztua izan arren, badu kontakizuna bueltan.

Eta betirako gordeta geratzen dira. Urteak pasata ere argazki hori ikustean, gogora datorkizu egun horretan zer sentitu zenuen, zer bizitu zenuen. Argazki batek sekulako gauza pila sorraraz diezazkioke barruan pertsona bati.

Zein puntutan erabaki zenuen argazkilaria izan nahi zenuela?

Pandemiarekin etxean egon ginen hilabete horietan inflexio puntu bat izan nuen. Momentuan lanik gabe nengoen eta zerbait egin nahi nuen, eta argazkigintzan hastea erabaki nuen. Egutero argazkiak ateratzen hasi nintzen, konfinamenduan eguneroko moduko bat egin nuen, nire semeekin batera. Puntu horretatik aurrera buru-belarri hasi nintzen gainerako lanekin.

Amatasunarekin lotutako argazkiak egiten dituzu, asko, ‘#purematernity’ hashtag-arekin. Nondik etorri dira?

Profesionalki honetan aritu nahi nuela erabaki nuenean, buelta bat eman nion gaiari. Nik, adibidez, nire amatasunean mugikorrarekin azkar ateratako argazkiak ditut. Ikusi eta oroitzapenak ekartzen dizkirate, baina nolabait esateko, ez dira argazki onak. Faltan botatzen ditut nire amatasuneko argazkiak. Haurrekin lan egiteko erraztasuna izan dut betidanik ordea, eta emakumea eta ama naizen aldetik sentsibiltate

hori ere badut beste ama batzuekiko. Merezi duen lekuan jarri nahi nuen amatasuna, eta buelta bat ematen hasi nintzen gaiari. Inoren lana gutxietsi gabe, ikusi nuen, argazki mota bat falta zela, amatasuna berezko egoera naturalean kontatuko zuena, eta artearen eta sormenaren aldetik beste puntu bat gehiago emango ziona. Hortik sortu zen *#purematernity*. Emakume guztiek merezi dute beraien amatasuna ondo gogoratzea gero; edozein ama izan daiteke argazki batean ateratzeko ona, eta amatasun guztiek merezi dute dokumentazio hori. Amatasuneko momenturen batean oso goian egon zaitezke hormonengatik edo agian oso gaizki zaude lorik egiten ez duzulako, baina denbora pasatzen denean konturatzeko zara horrelako argazkirik ez zenuela atera. Hori ez pasatzeko helburuarekin hasi nintzen.

Amatasuna bere errealitatean, zentzu guztietan jasotzen duzu.

Bai, hori da. Izan daiteke haurdunaldian zehar, erditzearen ondoren, haurrak helduagoak direnean, edo familiarteko giroan, baina zentroa beti ama izanez.

Zu zeu ama izateak lagunduko zizun horretan. Zenbat eragin dizu?

Zerotik ehunera ehun esango nuke. Ezin dut ziurtatu, baina nik uste ama izan ez banintz ez nintzatekeela argazkilaria izango. Ama baten ikuspuntutik egiten ditut argazkiak.



Falta den horren bila egiten duzu lan.

Egia da geroz eta gehiago erakusten dela, esaterako, sare sozialetan. Baina adibidez, Instagrameko kasuan, nire estiloko argazkilari askok gure lanak zentsuratuta ikusten ditugu, argazkiak borratzen dizkigute, kontuak baliogabetzen dizkigute, ez dutelako uzten haragia erakusten, emakume baten titiak erakusten. Eta horrez gain, beti erakusten zaigu erditze batetik oso ondo ateratzen dela ama, ez dauzkala begi-zuloak, oso ondo lo egiten duela, pozik dagoela, eta beste guztia barrutik eramaten da. Hori erakutsi

**ATARIAN jarrita Goierri
eta Urola Kostako
Hitza egunkarietan toan**

hilberriak • urteurrenak • eskertzak


Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€

Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€

Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.



egin behar da, naturalizatu, jendeak ulertzeko egoera guztiak direla posible, zilegi dela gaizki egotea.

Jende bati laguntzeko ere izan daiteke?

Oso harrera ona izan dute argazkiek. Azken argazki saioa, denboraz baino lehen jaiotako ume txiki batekin egin nuen. Beraien edoskitzea nolakoa zen dokumentatu nuen. Ondorenean mezu asko jaso nituen, beraien edoskitzea ere horrelakoa izan zela gogorazazi nielako, eta zein gogorra egin zitzaaien kontatuz, inork ez zielako aurrez ezer kontatu horri buruz, eta zein garrantzitsua den hori irudietan jartzea eta modu polit batean kontatzea. Krudela baina polita da aldi berean, eta horrek asko betetzen nau.

Argazki horiek egiteko ama izatera doazenak edo ama izan berriak beharko dituzu.

Nire lanak ikusi ondoren beraiek gerturatzen zaizkit gehienbat. Horrelako lan bat egiteko nirekin kontaktatu zuen lehen pertsonak, nire beste argazki mota batzuk ikusi zituen aurrez, eta argazki saio bat egin nahi zuela esan zidan, eta argazkilaria ni izatea nahi zuela. Egoera txar bat pasatu zuen erditzean, denbo-

ra bat pasatu zen erditze horretatik eta etapa hori ixteko buelta bat eman nahi zion kontuari. Beti egongo naiz eskertuta pertsona horri, lan horri esker ireki zitzaidalako atea beste lan batzuetarako.

Sare sozialek laguntzen dute horretan?

Nire kasuan bai. Kamera hartzea erabaki nuen momentuan Instagrameko perfila ireki nuen. Pixkana nire argazkiak aurkezten joan naiz, eta bai marken kasuan eta baita amatasunaren kasuan ere, sareetan erakusten dudana lanak ekartzen dizkit ia bezero gehienak. Bere alde txarrak eta onak ditu, azken batean, arau horiek errespetatu behar dituzulako eta beraien ildotik joan behar duzulako, baina hala ere nire kasuan oso lagungarria da.

Amatasunaz gain, haurren modak ere badu lekua zure lanetan.

Ezagun batekin komentatu nuen behin eta animatu egin nintzen. Nire bi semeekin, esaterako, argazkiak ateratzerako momentuan zerbait desberdina egiteko laguntzen zidan. Azken lana, adibidez, Orbea eta GAC bizikleta zahar batzuekin egin genuen marka

IRAGARKI LABURRAK

ALOKAIRUAN. Lizartzan jatetxe-taberna etxearekin alokatzen da, Jose Mari jatetxea. Etxeak hiru solairu, bost logela, bi egongela eta bi komun ditu. Interesa duenak, deitu telefono honetara: 943 12 49 04.

batentzat; istorio bat muntatu genuen. Askotan nire semeekin egiten dut lan, baina modeloak diren beste haur batzuekin ere aritzen naiz.

Zure semeak askotan dira protagonista zure argazkietan. Erraza da haiekin lan egitea?

Nik oso ondo ezagutzen ditut eta beraiek ere ni ondo ezagutzen naute, konplizitate hori nabaritu egiten da. Nik semeei egiten dizkiedan argazkiak bezero bati ateratzea zaila da, gertatu daitekeen arren. Bezeroa lehenik ezagutu egin behar dut, gero jakiteko zer irudi harrapatu. Nire semeekin lan egiteak gauza berriak probatzeko aukera ere ematen dit, badakidalak noraino eskatu ahal diezaiedan edo noraino jokatuz dezakedan beraiekin.

Argazkia aitzakia izango da batzuetan, semeekin momentu hori bizitzeko.

Bai, hala da. Pasa den urtean, Espainia mailan emakume argazkilari talde bat elkartu ginen, hamabost argazkilari gara. Hilabeteen autorretratu bat egiten genuen, izan zitekeen bakarrik edo familian. Eta guk, familian, elkarrekin adosten genuen ze argazki egin. Momentutxo hori aprobetxatzen genuen familian.

Zure familiari Ibarran ateratako argazki bat 'Vogue'ra iritsi da. Nolatan?

*Vogue*k *fotovogue* deitzen dion profil bat dauka, eta nahi duen argazkilariak bere argazkiak bidal ditzake.

Gero berak erabakitzen du publikatuko dituen edo ez. Udako egun batean, Ibarrako Arane baserrian geunden eta igerilekua oraindik berdeberdea zegoen ura aldatu gabe zegoelako; irudia ikusi nuen eta argazkia atera nion. Aurkeztea erabaki nuen eta onartu egin zidaten. Loteria moduko bat izan zen, baina tira, Ibarrako Arane baserria hortxe dago *Voguen*. Anekdotak txikiak dira baina ilusioa egiten dute.



Arkitekto eta barne diseinatzaileentzat ere egiten duzu lan. Zein arlotan aritzen zara gustuen?

Erosoen amatasuna eta familiako argazkiekin aritzen naiz. Berdin zait dokumentala izatea, hau da, nik norbaiten etxean goiz bat pasatzea eta gertatzen denari argazkiak ateratzea, edo zuzendutako saio bat izatea, adibidez, erretratu batzuk izateko, edo pintura batzuekin eta urarekin istorio bat muntatzea eta jolasten ari diren bitartean argazkiak ateratzea. Hori adibidez asko gustatzen zait.

Euskal Herria argazkiak egiteko leku aproposa izango da: mendia eta itsasoa gertu.

Denek esaten didate gauza bera. Nire *handicapa* da ez dudala estudioan lanik egiten eta beti eguraldiari begira egon behar izaten dudala. Baina egia da asko laguntzen duela berdea gertu izateak, hiriak ere ondoan izateak, hondartza mota ezberdinak... alde horretatik zorte handia daukagu.

Argazkilaritzan nora iristea gustatuko litzaizuke?

Momentuz bide honetatik jarraitzeko asmoa daukat, kontentu nago. Baditut buruan aurrera begirako pare bat ideia, ez amatasunarekin lotuta baina bai emakumearekin. Askok gustatuko litzaidake emakumea helduaroan balorean jartzea edo baita ere emakume migrazioaile eta errefuxiatuen istorioak iruditan jartzea.





RAMON OLASAGASTI
GALTZAUNDIKO
KIDEA

Lehen arreta

Medikuaren kontsultan.

- Aibalaaaa, Mikel, aspaldiko!!! Bizi al gaituk?
- Hortxe-hortxe, etzakela pentsa, Iker. Aurreko asteko beroarekin ia nireak egin zian.
- Bai, ez nauk harritzen, zer zen hura!
- Sanjoan suaren ondoan ere ez dik hainbeste bero egiten!
- Bai, mote.
- Ta hi zer?
- Hemen, osabari laguntzen. Gidabaimenik eta auto-rik ez zaukak eta...
- Kaixo, Antton. Ilobarekin kalera jaitsita orduan?
- Bai, bidea ez ahazteko, badakik. Betizu samarrak izan gaituk beti, eta edadearekin gero eta gehiago. Hobeto moldatzen nauk ni gure baserri punta hartan hemen kalezuloan baino...
- Igualako bizi zara han goian. Hemen beti badugu ke-usaina, bozina eta zikina!
- [...]
- Egongela berean, beste eserleku batzuetan...
- Apa Maddi, zer moduz?
- Ondo, mitiko analisi batzuk egin behar dizkidate, en plan kontrol, bakizu... Ta zu?
- Ni udaberri osoan polenarekin asako jodituta, atxis eta atxis, begiak puztuta, mitiko igande goizetako resaka edukiko banu bezala.
- Portzierto, zer moduz aurrekoan Kuadrilla Egunean?
- Ondo, nose; bueno, sinmas. Ez neon oso motibatuta eta...
- Badakizu guk aste hontan urgentzitan bukatu deula Donostin? Trago batzuk hartzea jun eta...
- Zesatezu?
- Bai, Aiurri ez dakit zer pasatu zitzaion, baina ziplo erori zan, tipiko zaku patata...
- Eta?
- Ezer, tentsio bajoi bat. Bakizu gainera zein tokatu zitzaigun urgentzitan? Zarauzko mediku hori, bertsolaria, Zarauzko hondartzako megafoniatik aritzen dana...?
- A bai, Zubia. Lehengoan irakurri nion *Berrian*, lehen

arretako medikuei buruz idatzi zuna. Un poco rollo, familia medikuen prestigioa ta matraka horiek, baino arrazoi zuen. Begiak ireki zizkian.

- Egia, zu medikuntza egiten ari zea...
- Bai, hirugarren mailan ja, baina gero ez dakit zer bide hartu, baina familia medikuarena ez da txarra... Lehen arreta, egia esan, oso inportantea da.
- Super...

[...]

- Hi, Iker, kale alde hontan zeharo aldatzen ari dituk kontuk. Honeako biden euskaraz sumatu diat jende mordo, eta hemen sala hontan ere euskaraz ari gaituk denak. Horko bi neska gazte horiek ere bai.

- Bai, osaba, kalean ere lehen baino dezente gehiago egiten da euskaraz. Hi, Mikel, gainera, ez al haiz kontu horietan ibiltzen?

- Bai Ueman teknikaria nauk, eta oraintsu plazaratu dizkiagu 2021ean egindako kale-neurketaren datuak. Ez duk sinetsiko: lehen aldiz euskara gehiago entzun duk Tolosako solasaldietan erdera baino.

- Euskara nagusitu zaiola erderari? Arraioa, esperantzara kondenatuok baxoerdi pare bat hartu eta topa egiteko moduan gaituk.

- Bertan goxo egin gabe ordea, ezta Antton?

- Dedio, gure garaian, peria egunean eta leku jakin batzutan bai, entzuten huan euskara, baina hortik aurrera, auzoan... Horregatik ez nauk jaisten ni kalera, kastillanoz ez genuelako gure garaian behar bezala ikasi.

- Ba ikustezu, orain euskararekin molda zaitezke osaba, baita kalean ere.

[...]

Medikuaren kontsultatik atea zabaldu eta...:

- Antton Lizaso?
- Bai, gu gea, osaba. Bueno, Mikel, ondo segi! Hurrena arte!
- Aio, Iker! Aio Antton!
- Antton Lizaso? Siéntese, por favor. Bueno, usted dira.
- Usted hori ni izango nauk, baina hik eman beharko dizkiok azalpenak, Iker, ni ez nauk kapaz eta.



«OSO HARRO NAGO PISTA ETA ERREPIDEA UZTARTZEN SAIATZEN NAIZELAKO»

EUKENE LARRARTE
TXIRRINDULARIA

Egutegia antolatzea eromena izaten da txirrindulari tolosarrarentzat. Pistan eta errepidean aritzen da eta bi modalitateko probak eta entrenamenduak ezkundu behar izaten ditu. Hala ere, bietan jarraitzeko asmoa du eta dagoeneko lortu duen maila hobetu nahi du.

Imanol García Landa

Orain dela zortzi denboraldi eman zituen lehen pedal kolpeak Eukene Larrartek (Tolosa, 1998). Pistan eta errepidean lehiatzen da, eta bietan maila altuan gainera. Pistan Tolosa CF klubarekin lehiatzen da hasieratik, gaur egun Gipuzkoa izenarekin, eta errepidean Bizkaia Durango taldean lehen denboraldia betetzen ari da.

Nolatan hasi zinen txirrindularitzan?

2015ean hasi nintzen, hamasei urterekin. Ordura arte kirol asko probatu nituen, eta futboleko amaitu nuen, harritzekoa... Laskorainekin hasi nintzen hasieran, ikastola eta geroko eskola kirolean, eta gero Tolosa CF-ra egin nuen salto. Nahiko urte egin nituen Tolosan, eta sekulako urte onak izan ziren, oroitzapen oso

onak ditut. Baina gero ez zen izan txirrindularitzagatik aldatu nahi izan nuela. Hasieran plana zen aldaketa bat behar nuela nire bizitzan, beste kirol bat egitea edo. Urte horietan larunbatetan partida banuen, igandetan aitarekin bizikletan ateratzen nintzen. Aita ez da profesionala eta ez da horretara dedikatu inoiz, baina beti ibili izan da. Futbola utzi nuenean, Ainhoa Artolazabalen taldearekin kontaktatu zuen, eta kon-turatzerako hurrengo urtean dagoeneko lehiatzen ari nintzen.

Ikusten denez, kirola egitea betidanik gustatu izan zaizu.

Egia esan bai, kirola beti egon da nire bizitzan. Mendira asko joaten nintzen. Kirol asko probatu nituen eta gero futbolari bukatu nuen. Beti gustatu izan zait kirola.

Futbolean ze postutan jokatzan zenuen?

Atezaina nintzen. Pixka bat kurioa da. Jendeari esaten diodanean, asko harritu egiten da. Aldaketa handia da, bai.

Orain futbola jarraitzen duzu? Eta kirola orokorrean?

Kirolak orokorrean bai, baina futbola orain gutxiene-takoa. Ez dakit zergatik aldaketa hori, lehen gustura ikusten nituelako partidak, baina egia da aspertu egin nintzela. Eta orain jarraitzen badut, emakumez-koen futbola izaten da. Gustatzen zait, baina, bestal-de, asko deskonektatu dut, eta kirol guztien artean futbola da gutxienetakoa jarraitzen dudana. Atletis-moa-eta jarraitzen ditut, eta beste kirol batzuk ere bai; gehiena txirrindularitza.

Txirrindularitzako hasierako urte horietan errepidean eta pistan batera hasi zinen?

Bai, bietan hasi nintzen. Txirrindularitzan hasten za-renean normalean errepidean hasiko zara. Eta nire kasuan, neguan, nire prestatzaileek txirrindulariak pistara eramateko ohitura zuten eta bertara joan nin-tzen ni ere. Hasiera pixka bat traumatikoa izan zen. Lehenengo egunean erorikoa izan nuen eta taldekide bat ere erori zen nire erruarengatik, eta lepauztaia hautsi zuen. Pentsatu nuen ez nintzela berriro pistara

itzuliko, eta gero begira non bukatu dudan. Pistan Anoetako Belodromoan *challenge*-ak egiten dira, ka-dete eta junior mailan. Guk junior mutilekin korritzen genuen. Gaur egun asko hobetu da eta neskek bere lasterketa propioa dute. Azken batean, kopurua asko handitu da. Nire aldetik, oso harro nago pistatik eto-rri naizela esaten dudanean.

Bizikleta gainean edonor ibili izan da, eta errepidean gutxi-asko, baina pistan aritzea beste gauza bat da, ezta?

Ezezagunagoa da, eta kirol gutxitu moduan hartu daiteke. Orain aurrerapausoak egiten ari dira, eta gero eta gehiago ikusten dira pistako lasterketak, baina hasi nintzenean ez nekien pistako txirrindulari-tza zer zen, Anoetako belodromoan ez nuen ezagu-tzen. Errepidean, hasieran, aitarekin ez bazen ez nin-tzen ateratzen, beldur pixka bat nuelako, errespetua ematen duelako. Pista ezberdina izan da beti, gure taldekoak joaten ginelako, eta prestatzaileek pistako talde bat zuten, eta beti oso ondo pasatu izan dugu. Pistatik, zentzu horretan, gusturago ateratzen nin-tzen.

Noiz jabetu zinen txirrindularitzarekin jarraitu nahi zenuela?

Gogoan dut, txirrindularitzako denboraldia bukatu zenean, prestatzaileei esaten niela gehiago nahi nue-la. Denboraldi-aurrean hasi nintzen, eta gimnasio pix-ka batekin, bizikletarekin ere, eta oso motibatuta hasi nintzen. Gero pistarekin hasi ginen eta segituan ikusi nuen entrenatzen banuen emaitzak hor zeudela, na-baritzen nuen nire prestakuntzak segituan gora egi-ten zuela. Hamasei urterekin hasi nintzen eta segi-tuan nabaritzen nituen hobekuntzak, eta horrek dena gogo gehiagorekin hartzea eragiten zidan. Pistan hasi nintzen lehiatzen, errepidea ere egiten nuen, eta bietan segituan ikusten nuen hor nenbilela, gustura, eta asko hobetzeko nuela, eta horrek motibatu nin-duen batez ere aurrera jarraitzeko. Gero bigarren-go urtean emaitza gehiago etorri ziren, baina lehenengo urtean dena berria izan zen, dena esperientzia be-riak.

Zortzigarren denboraldia duzu aurtengoa txirrindularitza. Gauzak asko aldatuko ziren, batez ere lortu duzun eskarmentua dela eta, bai pistari eta baita errepidean ere.

Bai, asko aldatu da. Eta atzera begira jartzen naizenean, batez ere horrelako elkarriketetan asko aldatu dela ikusten dut. Hasi nintzenean ez nuen ideiarik; bizikletaren mundua oso partikularra da. Hasi nintzenean dagoeneko junior mailan nengoen, eta normalean txirrindularitza txikitatik hasten direnak alebiretan edo infantiletan hasten dira, oso gazte. Kadete mailan lasterketetan eskarmentu gehiago hartzen duzu, korritzeko moduak-eta. Eta juniorretan dagoeneko eskarmentu dezentekoa dute, eta ni ez nintzen ezertaz enteratzen. Ni errepidean tropelean joaten nintzen eta askotan ez nekien zer gertatzen zen; agian lehenengo taldean nengoen, karrera lehiatzeko aukerekin, eta ez nintzen enteratzen. Zentzu horretan kategoriatxikiagoak galdu ditut, baina ez naiz damutzen. Juniorretan hasi nintzenean ikasketa azkarragoa izan zen; gainera, orduan, elite mailakoekin ateratzen ginen. Orain aldatu egin da eta euren lasterketak dituzte, baina guri elite mailakoekin askatzen gintuzten, agian estatu mailan profesionalak zirenekin. Orduan, azkar ikasi behar izan nuen, nahitaez.

Tolosa CF-ren taldean hasi zinen, eta pistari dago-kionez talde berean jarraitzen duzu.

Talde txiki bat gara; batetik emakumezkoetan hiru txirrindulari gaude, Garazi Estebez, Naia Amondarain eta ni; bestalde, Ander Albizu dabil txirrindularitza egokituko modalitatean. Hasieran Tolosan CF-n sartu



«Hasi nintzenean ez nuen ideiarik; bizikletaren mundua oso partikularra da»

nintzenean Caja Rural babeslearekin hasi zen taldea, gero Gipuzkoa izatera pasa zen. Lehen kadete, junior eta elite mailan aritu ginen bertan errepidean. Gero proiektua aldatu zen, eta hori alde batera utzi, eta pistako goi mailara zuzendu zen taldea. Hasieratik Tolosa CF klubean hasi nintzen, eskuzabalik hartu ninduten, dena erakutsi didate eta oso harro nago oraindik talde horretan jarraitzeaz. Harro eta oso eskertuta.

Errepidean, berriz, talde aldaketak izan dituzu. Tolosa CF-tik Leongo Eneicat Pecafer taldera, ondoren Laboral Kutxara eta orain Bizkaia Durangon zaudete.

Eneicat Pecafer taldera joan aurretik Gipuzkoa taldearekin egiten nituen estatu mailako lasterketak, eta nazioarte mailara ez nuen saltorik egin. Pistari nazioarteko maila polit bat hartzen ari nintzen eta errepidean koska hori igo nahi nuen. Unibertsitatean nengoen, eta pistako nazioarteko egutegiak denbora asko kentzen zidan, baina 2020n errepidean pauso hori emateko gogoia nuen, eboluzioa parekoa izan zedin. Eneicaten Eneritz Iturriaga txirrindulari ohiarekin kontaktua izan nuen, nire prestatzaileak ere ezagutzen zuen, eta akordio batera iritsi ginen eta talde horretara joan nintzen.

Urtea ez zen onena izan, pandemia iritsi zelako, eta oso urte zaila izan zen, taldean bertan ere zailtasun ugari pasa baikenituen. Etapa bat izan zen, eta ni oso eskertuta nago, oso ondo tratatu ninduten.

Eta gero Laboral Kutxa iritsi zen.

Proiektu berri bat zen, ilusioa pizten zuena, eta horregatik egin nuen aldaketa. Oso urte berezia izan zen iazkoa, batez ere nire taldekideekin oso harreman estuak egin nituen, eta oso ondo pasa nuen. Gero alda-



keta bat etorri zen. Egutegi aldetik beste maila bat nahi nuen, errendimenduan gehiago zentratzen zen talde bat nahi nuen. Laboral Kutxan agian ez dute ikuspegi hori oraindik. Bizkaia Durango taldea da Movistarren atzetik egutegi handiena duena estatuan, eta jabetu naiz azken bi urteetan maila bat eman dezakedala errepidean. Beste salto bat emateko aukera ikusten nuen, eta horregatik ari naiz aurten Bizkaia Durangon.

Hiru talde horiek, UCI Continental mailan daude, hau da, bigarren mailan. Hala ere, lehen mailakoe-kin, UCI World Tourrekoekin, lasterketetan parte hartzen duzue.

Nazioarte mailetan korritzen dugunetan, beti egongo dira World Tourreko taldeak. Lasterketa mailaren arabera, World Tour talde gehiago edo gutxiago egongo dira, baina horiek markatzen dituzte lasterketak. Esaterako, maiatzean lehiatzen egon garen probetan gutxienez hiru World Tour talde zeuden, eta maila asko aldatzen da. Ehuneko ehun profesionalak diren txirrindulariak dira; asko profesionalizatu da eta UCIk arauak jarri ditu horretarako, gutxienezko soldata bat ezarri. Eta gure Continental mailarekin tarte handiagoa egiten ari

da, eta azkenean errendimenduan ere nabaritu egiten da.

Aurten, errepideari dagokionez, zer emaitza nabarmenduko zenuke?

Belgikan eta Herbehereetan klasikoak korritzen hasi nintzen, eta hor ez nituen emaitza oso onak lortu, baina asko ikasi dut. Espainiako Kopan aritu gara emaitza politak lortuz, eta gero nabarmenduko nuke Burgosko Itzulian lortutako 17. postua. Lehen mailako lasterketa bat zen, World Tourrekoa, beraz, munduko onenak bertan zeuden. Lehenengo taldean ibili nintzen, eta azkenean 17. postuan iritsi nintzen eta pozgarria izan zen. Ez ditut agian lasterketa asko izan nire ezaugarrietara egokitzen direnak, nahiko mendi-tsuak izan baitira.

Eta, noski, nabarmenduko nuke nire lehen garaipena elite mailan, ekainean lortutakoa. Espainiako Kopako proba bat, Rosa Bravo Emakumezkoen III. VALLADOLIDeko Trofeoa. Ezuste asko izan zituen lasterketa bat izan zen, geldirik egon ginen eta gero berriro martxan jarri ginen; baina ihesaldia hartu nuen nire taldekide batekin batera eta errematatzea lortu nuen esprint batean, eta oso pozik. Beti oso gertu ibili eta gero garaipena lortzeak konfiantza asko ematen dit eta lanean jarraitzeko gogoia.

Lehen aldiz antolatu den Itzulia Women lasterketan parte hartzekoa zinen, baina azkenean ez zen posible izan.

Andaluzian egon ginen lastertzen, eta uste dut bertan COVID-19a itzuli zela tropelera. Itzulia Women aurretik Nafarroan ere lasterketa bat nuen aste horretan, eta ez nintzen ondo sentitzen; taldean ere positibo bat egon zen, testa egitea erabaki genuen, eta positibo eman nuen. Negatibo atera izan balitz ere, gorputza ez nuen ondo sentitzen, eta bertan behera uztea erabaki genuen. Erabaki nahiko gogorra izan zen, gogo handia nuelako etxeko lasterketan lehiatzeko. Emaitza aldetik zaila izango litzateke, maila handia zegoelako eta baita mendi asko ere. Baina lehenengo edizioa zen, etxeko errepideetan... Dena ondo badoa, datorren urtean izango naiz.

Errepideko lasterketetan zer motako lasterketak egokitzen zaizkizu ondoen?

Oraindik ez dut mugatu neure burua lasterketa mota batera. Errealista naiz eta badakit ez naizela esprinter petoa, igotzailea ezta ere, baina hor tartean aukera ugari daude. Nire lehenengo urtea izaten ari da egutegi oso batekin, eta oraindik ez dakit guztiz nola definitu naitekeen. Klasikoak asko gustatzen zaizkit; mendate batzuk pasa ditzaket eta gero talde txikietan esprint on bat egin. Ihesaldiak ere asko gustatzen zaizkit; nahiko txirrindulari erasokorra naiz, betidanik horrela erakutsi didatelako. Hor jolasean, aurkituko dugu zein lasterketa datozkidan ondoen.

Esprintetan nabarmendu izan zara, eta ezaugarri horrek zerikusia izan dezake pistarekin.

Hasi nintzanean ez nintzen batere azkarra. Beste modu batera irabazten nuen, arnas luzekoa nintzen eta agian itzuli bat irabazten nuen edo ihes eginda ibiltzen nintzen. Agian, lasterketa gogortzen denean, orduan nire esprinta gainontzekoena baino indartsuagoa da. Horregatik esaten dut errepidean ez naizela esprinter petoa. Askotan gertatzen den moduan, pistan onak direnak errepidean esprint handiak irabazteko gaitasuna dute. Ni, agian, zentzu horretan ez dut neure burua ikusten. Bestalde, pistako eta errepideko esprintak ez dira berdinak. Dinamika eta trikimailuak ezberdinak dira. Esan daiteke bizitasun hori badudala, baina oraindik errepidean nire distantzia aurkitzen ari naiz, eta oraindik ez dakit nire esprinta noraino iristen den.

Errepidean baduzu helburu jakinen bat aurtengorako?

Helburu bezala, errealista izanik, ahal dudana lasterketa guztietan egotea eta pila bat ikas-tea. Oraindik asko geratzen zait. Maiatzean korritu ditudanekin asko ikasi dut. *Gruppetta* hartzen ikasi behar duzu, metara iristen, egun txarra pasatzen, bidoiak igotzen... Gauza asko daude ikasteko. Emaitei begira ez dut jarri helburu jakin bat. Nahiga-

«Errepidean oraindik ez dakit nire esprinta noraino iristen den»

be ere iritsi zait, eta World Tour mailan lehen hogei-
ren artean sailkatzea polita da, eta nazioarteko lasterketa batean aurreneko hamar lehenengoetan sailkatzea polita izan daiteke. Gainontzekoetan ahalik eta ihesaldi gehienetan egotea eta erasokorra izatea lortzen badut nazioarte mailan, niretzat garaipen bat da.

Pistari dagokionez, nola hartzen da kontuan denboraldia eta zer helburu dituzu?

Pistan urte osoa hartzen da kontuan. Izan dezakezu proba bat urtarrilean, gero uztaillean, eta gero azaroan eta abenduan. Esan dezakegu urte osoko modalitate batean bilakatzen ari dela; etengabe egutegia aldatzen ari dira. Errepidearekin alderatuz, helburuak ez datoz bat. Pistan, adibidez, nazioarteko lasterketara joaterakoan nire helburua lehiatzea da. Pistan trikimailuak hartuta dauzkat, maila ere ezberdina da. Urtea Portugalen hasi nuen, eta bertan garaipena lortu nuen scratcheko proban, nazioarte mailakoan. Lehen aldiz Portugalera 2016an joan nintzen, oraindik juniorra nintzenez, eta ia bizikletatik jaitsi nintzen eguna izan zen; eta urte batzuetara bertara joan eta lasterketa hori irabazteak uste dut islatzen duela emandako saltoa. Amsterdamen ere izan nintzen eta bertan hirugarren postua lortu nuen; ia irabaztekotan egon nintzen baina azkenean ez zen posible izan. Alemanian, Bahnen-Tournee proban hirugarren postua lortu nuen ekainaren hasieran, omniumean, eta egia esan oso pozik lortutako emaitzarekin. Nazioarteko proba bat zen, maila handikoa, eta denak Munduko Txapelketarako puntu bila gindoazen. Azkene-ko proba irabaziz puntu asko lortu eta sailkapenean gora egin nuen hirugarren posturaino. Inoiz egin du-

dan postu onenetarikoa da maila horretako proba batean, azken batean proba olinpiarra baita. Munduko Kopako proba batean izan nintzen taldekako jazarpenean, baina egia da aurtengo Munduko Kopan ez naizela guztietan egon. Errepideko egutegiarekin ezin izan naiz bertan egon,



baina gainontzeko proba batzuk eginez biak uztartzen ari naiz, eta udan pista gehiago egiteko aukera izango dut.

Eta zer helburu duzu pistan aurtengoan?

Europako eta Munduko Txapelketak dauzkat. Oraindik zehazteko dago Munduko Txapelketak hurrengo Olinpiar Jokoetarako sailkatzeko balioko duen ala ez. Europako Txapelketan aurreko urtean bosgarren postu bat lortu nuen kanporaketa proban eta nahiko gertu ikusi nuen domina bat. Politia izan daiteke helburu bezala; ez naiz erotuko horretan pentsatzen, baina domina bat lortzea ez dut hain urruti ikusten. Munduko Txapelketa ezberdina da, baina lehengo urtean omnium proba egin nuen, olinpiarra, eta hamabigarren bukatu nuen. Beraz, lehen hamarretan sartzea helburu polita iruditzen zait.

Emaitza horiekin pentsatzen ari zara, eta orain urte batzuk ia ez zenekien nola erabili bizikleta pistan.

Bai, saltoa ikaragarria izan da, eta batzuetan ez naiz kontziente horretaz. Dena azkarregi pasatzen da, eta ez gara geratzen lortutakoaz pentsatzeko. Oso pozik nago egindako bidez.

Noiz dituzu txapelketa horiek?

Europakoa abuztuan izango da, München. Dirudie-nez modalitate ezberdineko kirolak bilduko dira ber-

tan, eta pista eta errepideko Europako Txapelketak bertan izango dira, eta baita beste hainbat modalitate ere. Gero Munduko Txapelketa urrian izango da.

Pistan hainbat proba daude eta hor batetik bestera aldatzen joan zara.

Errepidearekin alderatuz, pistan domina gehiago daude, hainbat proba daudelako. Postua ez du inork irabazita txapelketa horietara joateko, eta urte guztiko lana kontuan hartzen da gero nor joango den hautatzeko. Proben artean daude olinpiarrek direnak eta ez direnak. Taldeko jazarpena, omniuma eta madisona dira proba olinpiarrek. Beraz, Olinpiar Jokoetara joateko proba horietan zentratzea da garrantzitsue-na. Beste proba batzuk ere badaude, scratcha, puntuazioa eta kanporaketa. Ez dira olinpiarrek, baina horietan ere parte hartzen dugu. Horietan guztietan aritzen gara, baina gero Munduko Txapelketa batera joan eta ezin duzu guztietan parte hartu, aukeratu egin behar duzu; batetik, gehiago zentratzeko, eta bestetik, nekagarriegia izango litzatekeelako. Beraz, hautatzailearekin adostu ahal bada zer egin edo zer ez egin, hobeto.

Ziurtatuta ez badago ere, aukera izango duzu joateko, ezta?

Espainiako selekzioan kontu hori pixka bat zaila da.

Eskatu izan dugu irizpide batzuk idatziz jasota ego-
tea, txirrindulariok ere jakiteko zer bete behar dugun
hautagarriak izateko. Atletismoan gutxieneko marka
batzuk daude, eta badakizu hori eginez gero aukerak
dituzula joateko. Txirrindularitzan ez dago horrelako-
rik, eta batzuetan haserrealdiak ere izaten dira. Nik
badakit nirekin kontaktzen dutela; oraindik zehazteko
dago ze proba egin, baina nahiz eta aurten Munduko
Kopara ezin izan dudana joan, dena hautatzailearekin
hitz eginda dago. Gainera, ez da pista ez dudala egin,
nazioarteko probak egiten aritu naiz. Ez dakit zer
proba egingo ditudan, baina dena ondo badoa, ber-
tan izango naiz.

Zer emaitza nabarmenduko zenuke zure ibilbide osoari begira?

Ez nuke garaipenik nabarmenduko. Laugarren postu
bat eskuratu nuen 2020an, 23 urtez azpiko Europako
Txapelketan, omnium proban. Bi edo puntu batera
geratu nintzen brontzezko dominatik. Aurreko urte-
an, txapelketa berean nahiko esperientzia txarra izan
nuen. Ez nuen zortetik izan eta pixka bat traumatikoa
izan zen. Ordudanik psikologo batekin ere hasi nin-
tzen; nahiko urte txarra pasa nuen orokorrean, per-
tsonalki ere bai, eta Europako Txapelketa trauma bat
bezala izan zen niretzako. Eta urtebete beranduago
joan eta gainera pandemia tarteko zela, eta omniu-
mean laugarren postua lortzea... Oraindik sekulako
ilusioa pizten zait. Ikusi nuenean laugarren bukatu
nuela ez nuen sinisten. Niretzako sekulako lorpena
izan zen, baina batez ere hazkunde pertsonala izan
zelako. Oso garrantzitsua izan zen neure buruarekiko
konfiantza sendotzeko balio izan zidalako.

Kirolean gero eta garrantzia gehiago ematen zaio buruak duen eraginari. Besteak beste, presio handia jasaten duzuelako kirolariak.

Bai, batetik jartzen dizuten pre-
sioa dago, bestetik zuk zeure bu-
ruari jartzen diozuna, eta zoritxa-
rrez nik psikologoan bukatu nuen
neure buruak eztanda egin zuela-

ko. Zoritxarrez hori izan zen arra-
zoia. Nahiago izango nuke lehen-
ago joan izan banintz, prestatzaile
fisikoarengana joaten zaren mo-
duan. Nire ibilbidean hartu dudana
erabakirik onenetarikoa izan da.
Eta egia da geroz eta gehiago en-
tzuten den gai bat dela, psikolo-
goarena, baina oraindik talde as-
kotan-eta, World Tour mailan, psi-
kologoaren figura ez da oso
nabarmena. Eta iruditzen zait psi-
kologoarekin lan egiten duten eta
ez dutenen artean alde handiak
egon daitezkeela. Nire kasuan
oraindik asko dut hobetzeko, bai-
na izugarria izan daiteke psikolo-
goarekin egin dezakezun lanak
izan dezakeen eragina ondoren
errendimenduan.

**Eta ikusten duzu geroz eta kirola-
ri gehiagok izaten dutela horrela-
ko zerbitzua?**

Bai, eta nik horregatik saiatzen
naiz ahal dudana heinean psikolo-
goaren figura normalizatzen eta
ikustarazten. 2019an izan nuen
Europako Txapelketa horretan,
omnium proban lehiatu nintzen. Lau proba dira, eta
lauretan lortzen dituzten emaitzen arabera sailkapen
orokor bat ateratzen da. Lehenengo proban azkene-
ko postura bidali ninduten, nahiko modu bidegabe
batean, baina horretan ez gara sartuko. Atzean du-

zun prestakuntza guztia, eta iritsi
eta lehenengo proban horrela
hastea... Mentalki ez nengoen
prest horretarako, ez nekien hori
kudeatzen. Bigarrenengo proban
berritro ere gaizki joan zen, eta
dena buruarengatik izan zen. Ja-
kin izan banu hori kudeatzen, bi-

«Saiatzten naiz ahal
dudana heinean
psikologoaren figura
normalizatzen eta
ikustarazten»





garrenko proban nire maila eman ahal izango nukeen. Baina ez nituen tresnak horri aurre egiteko. Gero, arratsaldean, sekulako negar saioa egin nuen, gainera nire ama etorri zen lehenengo aldiz ikustera... eta horregatik dena traumatikoa izan zen. Baina gero hirugarren probarako buelta eman nion, eta pila bat borrokatu nuen, eta laugarrenengoan ere bai, eta postuak hobetzen joan nintzen. Hor konturatu nintzen agian zerbait falta zitzaidala. Horrelako mila egoera pasa ahal zaizkizu, lesio bat izan dezakezu, gaizki hasi baina gero jarraitu behar izatea... Ni horregatik hasi nintzen psikologoarekin, baina lehenago jakin izan banu, lehenago hasiko nintzatekeen.

Parisko Olinpiar Jokoak 2024an izango dira. Bertan lehiatzeko aukerarik?

Ziur aski, azken aldiz TOLOSALDEKO ATARIAN elkarriketate batean izan nintzenean, ez nuen ezta aipatuko Olinpiar Joko batzuetara joatea. Eta oraindik pentsatzea luzarora begira helburu bat izan daitekeela, kostatu egiten zait sinistea, baina hori da errealitatea. Nire egutegia orain moldatzen ari naiz 2024ko Olinpiar Jokoetara joateko. Lehenengoz saiatuko naiz sailkatzen, eta prozesu hori ere ikasi egin beharko dut. Agian ez da izango oraingoetarako, baina hurrengoetarako ikasketa bezala balioko dit. Oraingoaz neure buruari ez naiz presiorik jartzen ari. Saiatuko naiz oraingoetan egoten, eta ez badut lortzen, saiatuko naiz hurrengoetarako.

Tania Calvorekin ari zinen madison proba prestatzen. Aurrera begira hori izan daiteke helburua?

Bai, aukera bat izan daiteke, madisonerako sailkatzea lortuz gero, omniuma korritzeko aukera zabaltzen delako. Aukerarik idealena taldeko jazarpen probarekin izango litzateke. Hor selekzio baten inbertsioa sartzen da. Selekzio batek taldeko proba horretan sailkatzea lortzen badu, hortik automatikoki madison eta omnium probetarako sailkapenak lortzen dituzu. Orain berriro hobekuntza dator, baina Espainiako selekzioa ez da orain urte batzuk bezalakoa. Domina bat lortu zuten Atenasen. Azken urteotan alde batera utzita egon da taldekako jazarpena, eta aurten hasi gara berriro horretan lan egiten. Baina ez gara iristen 2024ko Olinpiar jokoetara, luzarora begirako lan bat da. Orduan, saiatu behar dugu beste probetarako, madison eta omniumerako sailkatzen.

Nola uztartzen dituzu errepidea eta pista, batera prestatzeko?

Ni ez nintzen oso kontziente bi modalitateak egiteak ekartzen zuen zailtasun horretaz. Azken batean bi modalitatetan maila altuan zabiltza, helburu ezberdinekin, eta porrota ere bikoitza izan daiteke... Hasi nintzenetik bi modalitatetan ikasi nuen entrenatzen, lehiatzen, eta orduan nahiko normalizatuta daukat. Euskal Herrian denok dakigu neguak nolakoak diren,



eta belodromoa aprobetxatzen dugu errepidean bi ordu ezn dituzunean egin. Abenduan elkartu, egutegia begiratu, programatu, kalkulagailua atera eta horrela ibiltzen gara. Zaila da, eta asko hitz egin behar da pistako selekzioarekin eta errepideko arduradunarekin. Pixka bat konplikatu da, baina posible da, eta oso harro nago biak uztartzen saiatzen naizelako. Espainian ez dira beste modalitate batzuk egitearen oso aldekoak, eta ikusten ari gara ziklokroseko izar asko gero errepidean izarrak direla, eta baita pistakok ere. Nik demostratu nahi dut hemen ere biak uztartzeko aukera erreala dela.

Emakume kirolariak profesional izatearen gaia mahai gainean dago gero eta indar gehiagoz. Zure kasuan, maila altu batean ari zara, baina ez zara horretaz bizi. Zaila da. Nik pistari esker Basque Team eta Kirolgiren diru laguntzak jasotzen ditut, baina ez dut hilero soldatarik jasotzen. Bizitzen ari garen unea txirrindularitzan orain arteko onena da, hazkunde handia izaten ari da. Gaur egun World Tour mailan gutxieneko soldata dago, eta horretaz bizi diren emakume txirrindulari asko daude. Egia da, bestalde, horrek ere aldea handitzen ari duela irabazten dutenen eta ez dutenen artean. Nire helburua ere bada luzarora begira soldata bat izatea errepidean. Pistan orain dudana, errepidean izatea talde profesional batean. Eta iruditzen zait orain aldaketa asko etortzen ari direla pix-

kana, eta agian Continental mailan gutxieneko soldata hori ere ezarriko dela luzarora begira.

Etorkizunera begira, zentzu horretan, gauzak hobetuko direla uste duzu?

Bai, ni positiboa naiz, eta ikusten ari naiz aldaketa; geroz eta aldarrikapen gehiago daude, eta ikusgarritasun gehiago. Ez zait iruditzen gure lehentasuna izan behar duenik soldata bat izatea eta listo. Iruditzen zait, esaterako, oso garrantzitsua dela telebistak ematen duen ikusgarritasuna. Esaterako, Burgosko Itzulia Teledporte kate publikoan botatzea eta

ikusteko aukera izatea oso garrantzitsua da, gure babesleek ikusgarritasuna izan dezaten. Marka berriak eta inbertsio berriak erakartzeko garrantzitsua da telebista izatea. Bestalde, sariak ere kontuan izatea: duela gutxi arte, emakumezkoetan, Giroko irabazleak 6.000 euro irabazten zituen; pentsa zer diru den hori. Gai horietan aurrerapausoak izaten ari dira eta telebista, askotan, oinarritzko bidelaguna izaten ari da.

Soldatarik ez baduzue ere, materialentzako-eta laguntzak izango dituzue Continental mailan zaude tenak, ezta?

Ni orain nagoen taldean bi bizikleta ditut, bat entrenatzeko eta bestea lehiatzeko, eta leku batera eta bestera eramaten naute. Azkenean dirua da falta dena. Bizkaia Durango bezalako talde bat, Euskal Herrian hainbeste urte daramatzanak, diruz oso justu dabil, zoritxarrez. Eta orain ezin da bat-batean ezarri gutxieneko soldata bat Continental mailako taldeen- tzako, bestela talde gehienak desagertu egingo lirarteke. Horregatik ikusten du egokiagoa pauso normalak egiten joatea, telebistaren jarraipena, esaterako. Agian hurrengo urtean interesa pizten zaie zenbait enpresa edo markei, Teledporten ikusi dutelako talde hori, eta bertan inbertitzea erabakiko dute. Pausoak progresiboak izan behar dira, pixkana egin behar den gauza bat da.

«MUNDUKO TXAPELKETA IRABAZTEA DA NIRE AMETSA»

Txirrindulari bat?

Lotte Kopecky. Orain boladan dagoen txirrindulari bat da, errepidea eta pista egiten dituen. Strade Bianche irabazi du aurten. Askok gustatzen zaidan txirrindularia da; pistari ezagutu nuen lehenengo, eta gero ikusi dut errepidean zer pauso eman dituen. Jendeak agian orain deskubritu du, baina nik aspaldi ezagutzen nuen.

Errepideko proba bat?

Paris Roubaix gustatzen zait. Espero dut egunen batean bertan lastertzeko aukera izatea. Aurten Ronde van Drenthe proban parte hartu nuen, klasiko bat harbidearekin, eta asko gustatu zitzaidan. Hori bai, izugarritzko eskuko minarekin bukatu nuen. Baina oraingoz nire karrerarik kuttunena bilakatu da.

Errepideko ibilbidea entrenatzeko?

Txirrindularitzan asko kanpora joaten dira entrenatzera, neguan Altea inguruetara eta orain Sierra Nevada. Ni oso Euskal Herrikoa naiz, etxeko errepideak asko gustatzen zaizkit. Mendia ere gustatzen zait, eta hemen igotzea gustatzen ez bazaizu, gaizki moldatuko zara. Kostara joatea ere asko gustatzen zait. Etxeko edozein errepidetan gustura aritzen naiz.

Belodromo bat?

Anoetako belodromoa da nire gustukoena. Egia da geroz eta baldintza okerragoetan dagoela, eta luza-
rora begira ea zer gertatzen den; pena izango litzate-
ke pistarik gabe geratzea. Bestalde, egurrezko bat
eta azpiegitura berritzaileekin-eta aukeratzekotan,
Portugalgo Anadia belodromoa asko gustatzen zait.
Beti joaten gara bertara nazioarteko probak korritze-
ra, eta lotura emozional bat ere badut, bertan lagun



batzuk egin ditugulako, eta lo egiten dugun hotelean oso ondo tratatzen gaituztelako. Herrialde bezala ere asko gustatzen zait.

Pistako probaren bat?

Gehiena madisona gustatzen zait. Nahiko proba arriskutsua da, oso bizia, eta oso teknikoa. Eta erakutsi zidaten moduagatik, nola ikasi nuen eta, asko gustatzen zaidan proba bat da, eta uste dut ona naizela horretan. Kanporaketa proba ere asko gustatzen zait.

Amets bat?

Gehien amesten dudana Munduko Txapelketa bat irabaztea da. Pistari, edozein modalitatetan, munduko txapeldun izan eta bertan izatea nire prestatzaile, nire ama, nire familia edo behintzat etxean ikusten egon daitezela. Eta errepidean ere, Munduko Txapelketa bat irabaztea. Nahiko nuke noizbait errepideko World Tour mailako talde batean egotea, munduko lasterketa onenak korritzeko, eta irabazi edo irabazten laguntzeko. Olinpiar Jokoetara joatea edozein kirolarientzako amets bat da, baina Munduko Txapelketa bat irabazi ahal izatea da oraingoz zirrara gehien sortzen didana.



finalak

Ekainak 25, larunbata
10:00etan
Albizturko
Mendikute frontoian

ESKU PILOTA

BENJAMINAK B



Alustiza - Altuna

Artola - Gorostidi

BENJAMINAK A



Huarte - Olaetxea

Aldazabal - Zubelzu

ALEBINAK



Eizagirre - Urkola

Iparragirre - Iraola

INFANTILAK



Perurena - Caminos

M. Elola - B Elola

GOMAZKO PALETA

BENJAMINAK - ALEBINAK



Mayoz - Bejarano

Polo - X. Aburuza

INFANTILAK



Lasa - Goikoetxea

Juantorena - Luluaga

Antolatzaileak:

Tolosaldeko **ataria** eta Atzapar (Asteasu), Aurrera Tolosa (Tolosa), Behar Zana (Amasa-Villbona), Intxurre (Alegia), Kuku (Anoeta), Sendi Ekintza (Ibarra), Txulobi (Aduna), Zazpi Iturri (Amezketeta) eta Ziotza (Zizurkil) pilota elkarteak. Albiztur, Alkiza, Altzo, Berastegi, Bidania-Goiatz, Ikaztegieta, Larraul eta Lizartza pilota eskolak.



SILVIA ETA CARMEN MATEO

Eguna argitu du!

Olerkia: **Silvia Mateo.**

Akuarela: **Carmen Mateo.**



Zulo iluna, azkenean,
atzean geratu da;
aurrera begiratuta...
zeru urdina haren gainean!

Eguzkiaren diztirak
begiak itxiarazten dizkio
baina igartzen duenak
arima alaitzen dio.
Utzi du bere babesa.
Orain dena da sorpresa,
aurkikuntza, interesa.
Non egon da orain arte?
Hau dena galtzea ere...

Pandemiaren ondoren,
gera baten hotsak hortxe.
Behar zuen pozaren orde
dena txarra eta tristea zen
gertaerek ez zioten
ilusio izpirik sortzen!
Eta, konturatzeko,
bizipoza akabo:
itxi zitzaion ahoa
ahuldu gorputz osoa
hautsi egin zen, gaixoa.

Tarteka, argi izpiek
ikusten ez zuen hura
iragartzen zioten;
ikusten zuenak, aldiz,
iluna izanagatik,
itsutzen zuen guztiz.

Eskerrak, halako batean,
ezkortasuna gaindiz,
altxatu eta oreka
loru duen lehio ertzean.
Hemendik aurrera nahi du
bere burua zaindu
inguruko altxor guztiak
ikusi eta dastatu.

Horregatik, oraingoan,
udako solstizioan,
kopetako kezka zimurrak
kalpar gorri bihurtu,
eta paparra hazita, harro,
hau oihukatu nahi du:

«Kukurrukuku,
EGUNA ARGITU DU!».

AGENDA

OSTIRALA

EKAINAK 24

ABALTZISKETA

SAN JOAN EGUNA

11:00. Meza nagusia.

Ondoren. Jubilatuentzako hamaiketakoa.

Bitartean. Triki-poteoa gazteen eskutik.

12:30. IX. Aitor Toka txapelketa.

14:30. Bertso bazkaria Larraitzen Iker Zubeldia, Iban Urdangarin eta Jexux Mari Irazurekin.

21:00. Barrikotea herriko plazan, afaria norberak eramanda.

Jarraian. Erromeria, Obaneuke taldearekin.

ADUNA

WEBSAIL PROIEKZIOA

21:15. *Belarri bero bai esan?* websailaren proiektzioa. 16 urtetik gorakoentzat. Kultur aretoan.

ALEGIA

SAN JOAN EGUNA

San Joan eguneko zahagi ardoa.

AMASA-VILLABONA

FILM PROIEKZIOA

19:30. *Gizatasunetik jainkotasunera* film laburraren proiektzioa eta solasaldia egileekin. Sarrera doan. Jon Iñaki Ormazabal eta Ramon Balerdi billabonatarrek, film labur honetan *Gizatasunetik Jainkotasunera* performancea aurkezten dute. Gurea antzokian.

ANOETA

JAIK

SAN JOAN EGUNA ETA JUBILATUEN EGUNA

12:00. Meza, jubilatuei eskainia.

14:00. Herriko jublatu eta pentsiodunen bazkaria eta dantzaldia.

BELAUNTZA

SANJOANAK

10:00. Arku tiroa.

11:00. Meza, San Joan elizan.

12:00. Toka txapelketak eta ondoren hamaiketakoa irabazleentzat. 17:30. Haurrentzat ipuin kontalaria.

22:30. Mus txapelketa herrikoia, Martintxo soziedadean.

AIZKORA KANPORAKETA

18:30. Bigarren mailako aizkora kanporaketa, gizezkoen maila. Egin beharreko lana: 54 eta 60 ontzetako bina enbor. Jokin Urretabizkaia, Julen Gabirondo, Axel Larrañaga, Unai Zabala, Yulen Aranberri eta Jesus Maria Mujika ariko dira Elizalde pilotalekuan.

BERASTEGI

JOLAS GUNEA

11:00-13:00 eta 16:30-19:00.

Gipuzkoa jolasean jolas gunea Reala fundazioaren eskutik.

PINTXOPOTEA

19:30. Pintxopotea, herrian zehar.

OREXA

OSTIRAL KULTURALAK

22:00. Txalainak taldearen kontzertua, Ostatuko Ganbaran.

TOLOSA

SANJOANAK

07:00. Zinegotziei deia, Tolosako Udal Txistulari Bandaren eskutik.

08:30. Diana, Tolosako Udal Musika Bandaren eskutik.

08:45. Diana, Tolosako eta Iruñeko udal txistulari banden eskutik.

09:00. Diana, Tolosako Dultzaineroak taldearen eskutik.

09:30. Plaza Zaharrear eskopetariak eta Tolosako Udal Musika Banda bilduko dira. Diana, desfilea eta, ondoren, San Joan



Alardea, Gipuzkoako antzinako foru-milizien oroimenez, udalbatza buru dela.

10:00. Meza Nagusia Andre Maria parrokian. Santa Maria Musika Kaperak parte hartuko du.

Ondoren, prozesioa. Bertan parte hartuko dute udalbatzak, kofradiek, bordondantzariak eta erraldoiek; aldi berean,

elkarteetako eskopetariak ordenantzetako salbak botako dituzte betiko tokietan.

Elizkizunak amaitu ondoren, eskopetari konpainiak Euskal Herria plazan bilduko dira berriro, bertan azken deskargak egiteko.

13:00. Kontzertua, Berdura plazan, Tolosako Udal Musika Bandarekin eta Tolosako eta Iruñeko udal txistulariekin.

16:40. Udalbatza, Tolosako Udal Musika Banda, txistulariak, bordondantzariak eta eskopetariak Plaza Zaharretik



abiatuko dira Andre Maria eliza nagusiko bezperetara joateko. Ondoren, Arrameleko San Joan kaperan izango diren arrats otoitzetan parte hartuko dute. Elizkizuna amaitzean, udalbatza, bordondatzariak, txistulariak, Udal Musika Banda eta eskopetarien konpainiak Trianguloan bilduko dira, bertan udalbatzak *Eskualdatzeko soinua* pieza eskainiko du, eta azken deskargak botako dituzte.

Ondoren, udalbatza Zumardiaundira joango da eta ohiturazko *Aurrekua* dantzatzuko dute bertan. **20:00 eta 23:30.** Kanean txaranga kalez kale ibiliko da.

23:00. Suak: Vulaco piroteknia.

23:30. Dantzaldia Orquesta Tsunami taldearekin, Lopez Mendizabal plazan.

23:30. Kontzertua Plaza Berrian: Dupla eta Muxutruk. .

TOLOSALDEA

ELKARRETARATZEA

Hilabeteko azken ostirala izanik, presoen eskubideen aldeko elkarretaratzeak izango dira herriz herri.

LARUNBATA

EKAINAK 25

ABALTZISKETA

SANJOANAK

11:00. Ume jolasak. Eguraldi ona izanez gero, ur jolasak.

15:30. XVIII. Mus Txapelketa, herrikoentzat soilik.

21:00. Sagardo dastatzea herriko plazan: Urbitarte, Isastegi, Olaizola, Rufino, Saizar, Zabala eta Begiristain. Afaria norberak eramanda.

Jarraian, erromeria Iratzarrekin.

ALBIZTUR

ATARIA PILOTA TXAPELKETA

10:00. VI. Ataria Pilota Txapelketako finala, frontoian.

AMASA-VILLABONA

TXAPELKETA

10:00. Behar Zana elkartearen 75. urteurreneko ekitaldia. Errebotea Sutan txapelketa azkarra. Talde gorri eta zuriaren arteko partidarekin hasita. Ondoren, berdearen eta urdinaren artekoa. Arratsaldean, 16:30ean hasita, goizeko bi galtzaileen arteko partida eta ondoren irabazleen artekoa.

ASTEASU

SANPEDROAK

18:00. Oinkariren eskutik herriko haurren dantza emanaldia.

BELAUNTZA

SANJOANAK

16:30. Bolo eta toka txapelketa ofiziala.

21:00. Herri afaria frontoian.

Ondoren, DJ Watsufly eta DJ. Black Hobbit disko festa.

IBARRA

SOLSTIZIOA

17:00. Suak Harrotuz: solstizioa, ohiturak eta emakumeen lana baloreen jartzeko ibilbide antzetzua. Ordu erdiro aterako dira taldeak. Izena udaletzeko harreraren eman behar da. Egunean bertan ere izena emateko aukera egongo da lekua egonez gero.

TOLOSA

SANJOANAK

10:00. Beotibar pilotalekuan, Zesta Punta Eskolak antolatuta, San Joan Zesta-Punta nesken txapelketa.

11:00. Haurrentzako Jolas Parkea Alondogia plazan.

12:00. Herri Kirolen erakustaldia Trianguloan; Ugaitz Mugerza, Iñaki Azurmendi, Karmele Gisasola, Lucia Orbe, Jokin Eizmendi eta Jose Martin Bustinza.

12:00. Tolosa Kantari taldea kalez kale ibiliko da, herria kantuz alaitzen.

16:00. Haurrentzako Jolas Parkea Alondogia plazan.

17:00. Zezentxoak haurrentzat Tolosako zezen plazan. Fraskuelo Peñaren 25. urteurrena.

19:00. Berdura plazan, San Joan Sagardo Txapelketa. Txapelketa bitartean, dastatzea: bakailaoa, sagardotan egositako txorizoa eta sagardoa.

Antolatzailea:

Batasuna elkarte.

20:00. Kontzertua Euskal Herria plazan: Joseba Tapia.

23:30. Dantzaldia Joxe Mendizabalekin, Lopez Mendizabal plazan.

23:00. Kontzertua Plaza Berrian: Bulego.

TOLOSA

KILOMETROAK

10:00. Kilometroen aldeko tonbola San Frantzisko pasealekuan (Gipuzkoako Artxibo Orokorren aurrean), egun guztian zehar.

IGANDEA

EKAINAK 26

ABALTZISKETA

SANJOANAK

12:00. Herriko gazteen hiru pilota partida.

18:00. XXI. Zaldi lasterketa Amezketatik Abaltzisketara.

Ondoren, Aire Ahizpen kontzertua elizan.

21:00. Herri afaria (afaria norberak eramanda).

BELAUNTZA

SANJOANAK

17:00. Lopene ganaduak: poneyak eta bigantxak herriko plazan.

19:00. Saiheski eta sagardo dastatzea herriko plazan, eta festei amaiera emateko suziariak.

BERASTEGI

HERRI KIROLAK

12:00. Eguerdian herri kirol saioa. Sarrera 5 euro eta 16 urtetik beherakoak doan.

Gizonezkoen 2. mailako Gipuzkoako Aizkora Txapelketaren 1. kanporaketa: Xabier Zaldia, Ibon Garaiburu, Andoni Iruretagoiena, Aratz Mugertza, Aitor Urteaga, Urtzi Olasagasti. Emakumezkoen Gipuzkoako Txing Txapelketa: Lierni Osa, Ane Urresti eta Ainitze Zumeta. Emakumezko Aizkolari Gaztea Txapelketa: Malen Barrenetxea, lehenengo plaza izango du. Emakumezko Harri-Jasotzaile Gaztea Txapelketa: Udane



Ostolaza 63 kiloko koparekin ariko da.

Gizonezko harri-jasotzaileak Agerre harri bereziekin: Aimar Irigoien, Jokin Eizmendi eta Jon Unanue Goenatxo III.a. Egin beharreko lanak: 200 kiloko Agerre harri errektangular bereziarekin bakoitzak 2 minutuko txandak eta 152 kiloko Agerre harri kubiko bereziarekin bakoitzak 3 minutuko txandak.

LEABURU-TXARAMA

SANPEDROAK

JUBILATU ETA PENTSIODUNEN EGUNA

12:30. Herriko dantzariak.

14:00. Bazkaria Zazpi Bide elkartean, Egaña eta Lizaso bertsolariak eta Ostolaza trikitilaria.

TOLOSA

SANJOANAK

10:00. Tenis Txapelketako finalak Berazubín.

11:00. Haurrentzako Jolas Parkea Alondegia plazan.

12:00. Bertso jaialdia Berdura

plazan: Maialen Lujanbio, Oihana Iguaran, Unai Iturriaga eta Haritz Mujika. Gai-jartzailea: Iker Iriarte.

16:00. Haurrentzako Jolas Parkea Alondegia plazan.

19:00. Euskal Herria plazan Arnas Berriz kontzertua: Udal Txistulari Bandaren eskutik eta hainbat eragileen artean antolatua.

20:00. Kontzertua Plaza Berrian: Kerobia.

ASTELEHENA

EKAINAK 27

BERASTEGI

GOIZAK LAGUNARTEAN

10:00-13:00. Ekainaren 27tik uztailaren 29ra, astelehenetik ostiralera, umeentzako ekintzak.

IRURA

KABARETA

19:30. *Esnatu naiz* kabareta, Kulturgunean. Duela 10 urtera arte bere familiarekin baserrian bizi zen Elurrek, Londresko The Pink Flamingo klubean bere showa du. *Esnatu naiz* antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen showa da. Identitatea, giza-harremanak eta sexualitatea ditu hizpide. Gizartean errotuta dauden hainbat ohitura eta arau zalantzan jartzeaz gain, LGBTI+ komunitatearen eskubideen aldeko mezua zabaltzeko nahi du.

TOLOSA

AMAROKO ANTZERKI ASTEA

17:00. Pailaztana Junior: *Zirku berezi bat*, Auzo etxean.

TXAPELKETA

Areto futboleko San Joan txapelketa Usabal kiroldegia, Kirolagunak elkartearen eskutik.

AUZOLANDEGIAK

09:30-13:30. Auzolandegiak 2022 12-17 urte bitartekoei zuzendurik. Urkizuko Dama Iturrian ariko dira.



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako bina sarrera

- Leire Aristeta (Aduna)
- Milagros Agirrezabala Zubillaga (Tolosa)

www.mendexapark.com
688 85 62 83
MENDEXA

Ataria jarriko da harremanetan bonoa bideratzeko.



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

- Jose Mari Zapirain Larraza (Altzo)
- Josu Elola Zeberio (Albiztur)

aquariumss.com

Aurrez deitu museora. Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.



3 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera

Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
www.birdcenter.org

- Gorka Igartua Larrañaga (Tolosa)
- Maider Gallurralde (Anoeta)

Aurrez deitu museora. Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.



Atarikide txartela erakutsi behar da saria erabiltzeko



Deitu 943 65 56 95
edo pasa bulegotik!

ESKURATU MARIA ALTUNA ILUSTRATZAILEAK DISEINATUTAKO GELARIOKO MATERIALA!

KATILUA

Atarikideak:
9 euro.

Atarikide ez direnak:
11 euro.



BOTILA

Atarikideak:
9 euro.

Atarikide ez direnak:
11 euro.



POLTSA

Atarikideak:
8 euro.

Atarikide ez direnak:
10 euro.



PACK-A

Atarikideak:
20 euro.

Atarikide ez direnak:
26 euro.



IRAINA HARROTASUN

Gehituk eta Mugen Gaietarik GKEek 'Opil eta muxilen binetak' album ilustratua oinarrituta hamar panelez osatutako erakusketa prestatu dute. Irurako herriko eskolan izango da ikusgai, datorren astelehen eta asteartean, harrotasunaren egunaren bueltan

Jon Miranda Irura

Gehitu eta Mugen Gaietarik erakundearen lankidetzaren emaitza da 2018an kaleratu zen *Opil eta muxilen binetak*. *Komiki lesbikoak bi ertzetatik* izeneko komikia. Bi GKEek hainbat alderdi lantzen dituzte LGBTI+ pertsonen berdintasun efektiboa lortzeko, eta gizarte eraldaketarako hezkuntzaren eremuan parte hartzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatutako proiektu batean, zeinak helburu bezala duen agerian jartzea, Latinoamerikan nahiz Espainiako Estatuan lesbienek bizi dituzten eguneroko errealitateak.

Asmo horrekin, Teresa Castro eta Paty Ortiz de Za-

ratek koordinatutako ediziorako hamar ilustratzaile gonbidatu zituzten, Latinoamerikakoak bost eta beste bost Espainiako Estatuak. Istorio bakoitza hiru orrialdetan kontatu zuen ilustratzaile bakoitzak, eta orain, hamar paneletan jaso dituzte lan horiek. Irurako herri eskolako gelan ikusgai izango dira, datorren astelehen eta asteartean, 16:30etik 19:00etara.

«Erakusketarekin euskal gizarteari ezagutarazi nahi dizkiogu LGBTI+ kolektiboko pertsonen bizi dituzten zailtasunak, bai Latinoamerikako hainbat herrialdetan, eta baita Euskal Herrian ere. Komikian jasotako binetek egunerokotasuneko errealitateak

«Harresiak etzan eta aurreiritziak desagerrarazteko modu bakarra da ezagutza»

MAITANE ARZALLUS

erakusten dituzte. Elkarren arteko ezagutzatik, uste dugu, gizarte hobe bat lortu daitekeela», dio Gehituko teknikari den Maitane Arzallusek.

Gizartearen eraldaketarako hezkuntzaren bidez hainbat arlotan egin nahi dute azpimarra Gehituk eta Mugen Gainetik, hala nola, gizon eta emakumeen arteko berdintasunean, kulturartekotasunean, elkartasunean, tolerantzian edota bakea eta giza eskubideen defentsan. Hain zuzen, erakusketaren izena, jatorrizko komikiaren gaztelaniazko izenetik itzulitakoa da. Ozeano Atlantikoaren bi aldeetan, lesbianak izendatzeko erabiltzen diren terminoak dira *torta* (Argentinan), eta *bollo* (Espainia) eta horien euskarazko ordainak, berriaz, muxil eta opil hitzak. «Irainak izateko gogoarekin erabiltzen zituzten, baina dagoeneko indar hori galdu dute, eta orain, emakume lesbianon borroka indartzen duten hitzak ditugu. Emakume eta homosexual izateagatik diskriminatzen gaituen gizarte batean lekua hartzeko gure modua dira. Lesbianok birjabetu egin gara hitz horietaz».

Emakume lesbianek Latinoamerikan, zein Espainiako Estatuan bizi dituzten eguneroko egoerak eta publiko gehienarentzat «surrealistak» direnak ikusarazi nahi ditu erakusketak. «Eta hori umorez eta komikiaren bidez egin dute egileek. Tresna horien bidez, errazagoa zaigu erakusketa bisitatzen duten pertsonengana iristea, haiengan harridura eta hausnarketa eragitea, eta ondoren, ezagutza zabaltzea. Harresiak etzan eta aurreiritziak desagerrarazteko modu bakarra baita ezagutza», dio Arzallusek.

2018tik Euskal Herriko herri askotara eraman dute erakusketa hau eta eskatu izan dieten tokietan hitzaldiak eskaini izan dituzte Gehituko kideek. «Guretzat garrantzitsua da herri txikietara ere erakusketa eramatea, kolektiboko jendea ikusarazi eta antolatzen joateko hondar aletxoak dela iruditzen baitzaigu». Lesbianen errealtatea erakusten duen proiektu honekin batera, aurten Gehitutik pertsona transen bizi-

penak bilduz beste komiki bat atera du.

Hauek dira *Opil eta muxilen bintak*. Komiki lesbikoak bi ertzetatik album ilustratua bildutako irudiekin hamar paneletan kontatu dutena:

‘Brianak’ - Sheila Alvarado (Peru)

«Peru nahikoa herrialde handia da eta hiru eskualdetan zatituta dago: kostaldea, mendilerroa eta oihana, eta beraz, sasoiko hainbat fruta, janari eta animalia ditugu. Horrez gain, 43 jatorrizko hizkuntza daude herrialdean, eta beraz, lesbianak aipatzeko hainbat hitz ditugu; nire adiskide eta ezagunen artean gehien erabiltzen ditugunak bilduma bat egiten saiatu naiz, eta kontatzen dudana uda honetan nire neska-lagunarekin benetan gertatu zitzaidan zerbait da».

‘Irribarrea’ - Beliza Buzollo (Brasil)

«Kaleko pertsonen begiradak eta *lesbian angry*-aren estereotipoa azaltzen ditu istoriotxoak. Aurkezpen maskulinoagoa duen pertsonaiak, irribarrea darabil aurreiritzi eta bortizkeriazko begiraden aurrean babes modura. Irribarreak erakusten du, espero denaren kontrara, lesbiana izatea ez dela mehatxu bat. Gogorik gabe edo babes bezala irribarre egiteak, ordea, min egiten du eta nekagarria da. Frustratuta, pertsonaia konturatuko da, gainerako guztiei egiten diela irribarre, bere buruari izan ezik».

‘Etxe-aldaketa’ - Victoria Rubia (Txile)

«Bizitza azkar igarotzen den garai honetan, egunerokotasunaz gozatzea ahanzten zaigu askotan. Are gehiago, lesbiana gisa eta emakumeekin harremanak dituzten emakume gisa ikusezin bihurtzen gaituztenean. Istorio honek lesbiana bikote baten eguneroko bizitza azaldu nahi du, eguneroko elkarriketa batean gertatzen diren aldaketak eta erabakiak erakutsiz. Soiltasunez, arlo pertsonaletik eta barnetik hitz egiten duen istorio bat izan nahi du, beste pretentsiorik gabe».

‘Irteera’ - Carla Berrocal (Espainia)

«Istorioa Espainian dago kokatuta, 50-60ko hamarkadan. Lesbianak diren adiskide talde bat elkartu eta landa ingurunera joango da txango bat egitera. Une horretan bakarrik sentitzen dira libre eta benetako, ohikoena izaten baita sexualitatea ezkutatzea eta errepresio frankistaren aurrean babesteko paper bat interpretatzea. Garai horretan euren bizitza nahi zuten bezala bizitzea erabaki zuten emakume ausartek adiskidetasuna eta aliantzak izan zituzten armarik onenak».

‘Dena musu batengatik’ - Nacha Vollenweider (Argentina)

2010eko uztailaren 15ean Argentinako kongresuak berdintasunezko ezkontza onartu zuen. 2017ko urrian, Mariana eta Rocio elkar agurtzen ari ziren Buenos Aires hiriko Constitucion geltokian, musu soil batekin, edozein bikotek egingo lukeen bezala. Musu berezia zen, Rociok hurrengo astelehenean, hainbat urtez abusuak egin zizkiolako, Armadako militarra zuen aitaren aurkako entzunaldi batean parte hartu behar zuelako. Agurtzeko modu hori, ez zitzaion Metroviaseko langile bati gustatu. Marianak zigarro bat piztu izanaren aitzakiarekin atxilotu zuen, nahiz eta jende gehiago erretzen egon toki berean. Poliziaren ziega batean amaitu zuen Marianak, biluzik jarrazazi zuten eta haren gorputza miatu zuten, prozedura hori, berez, debekatua dagoen arren. Tratua maskuli-

noa izan zen eta drogen bila miatze iraingarriak egin zizkiotela salatu zuen. Rociori ezkontza ziurtagiria eskatu zioten Marianarekin duen harremana frogatzeko, hori bikote heterosexual bati eskatzen ez zaionean. Marianak eta Rociok kasua salatzea erabaki zuten, poliziak eragindako indarkeria instituzionalagatik. Lesbiana talde feministek *besazo* eta *tortazo* deitutako ekintzak antolatu zituzten Mariana atxilotu zuten lekuan. Gaur egun Mariana prozesatuta dago eta milaka pesoko enbargoa ezarri diote epaiketari aurre egiteko».

‘Zer egiten dute lesbiana txiletarrek’ - Katherine Supnem (Txile)

«Txileko lesbianak antolatu egiten dira, politizatuta daude, eta hainbat taldek aktibismoan eta aktibismo politikoan dihardute. Bineta hauetan talde horiei buruz hitz egin nahi izan dut, euren lana agerian jartzeko eta neskek ez dezaten pentsa ezin dela, ez dezaten pentsa bakarrik daudela».

‘L.S.B., Ana eta aitzakia... merkeak?’ - Teresa Castro (Euskal Herria)

«Lesbiana bikote batek bidaia bat egiten duenean, joango diren herrialdeko zirkunstantziak kontuan izan behar ditu, 72 herrialdetan homosexualitatea zigortuta dagoelako eta zortzi herrialdetan heriotza zigorrarekin zigortzen delako. Perun, sexu bereko pertsona helduen arteko sexu-praktika adostuek ez



dute inolako zigor zibil edo penalik 1924az geroztik; hala eta guztiz ere, duela gutxi egindako inkesta baten arabera, Peruko gizartearen gehiengoa sexu bereko pertsonen arteko batasun zibil eta ezkontza legalizatzearen aurka dago».

‘Chicazo, el tfm’ - Susanna Martin (Euskal Herria)

«2015eko anekdota autobiografiko bat abiapuntutzat hartuz hasi nintzen hainbat hedabideetan serie bat argitaratzen. Behin kalean *machorra* eta *chicazo* deitu ninduten. Lesbofobia ez da bineta hauen *leitmotiv* bakarra, nire inguruko unibertso osoa baizik. Itxura eta janzkera arauen arabera eta hegemonikoa ez deen sortzen den lesbofobiaz ari naiz, transfobiari ere lotutakoa. Aurreiritzia eta pertsonak lehen begiratu batean sailkatu behar izatea ez dago soilik LGBTfobiari lotuta; mekanismo hori bera erabiltzen da pertsona arrazializatuentzat ere; protagonista zuriak elkarriketa egiten dion pertsona arrazializatuari, berak kritikatzeko duen hori bera egiten dio. Onartzen dut botere sistema jakin batek zapalduetako kolektiboko kideok indarkeria sinboliko hori beste batzuekin erabili dezakegula».

‘30 urtetatik aurrerako krisia’ - Miriam Muñoz (Espainia)

«30 urtetako krisia egunerokoaren eta surrealismoaren arteko topaketa da, helduarora igarotzea definitzen duen txinparta txiki bat, non atzera egiterik ez

Opil eta muxilen binetak

IRURA

Ekainak 27, astelehena

16:30 - 19:00.

Erakusketa zabalik izango da herri eskolako aretoan.

19:30. *Esnatu naiz* kabareta eskainiko du Andoni Mutiloak.

Ekainak 28, asteartea

16:30 - 19:00.

Erakusketa zabalik izango da herri eskolako aretoan.

dagoen. Buru-argitasun distira bat, inoiz ez delako berandu norberarekin topo egiteko, normalki ezustean gertatzen dena».

‘Bakarrik jolas bat da’ - Xulia Vicente (Valentzia)

«Claudia millennial, nerd eta Interneten garaiko alaba da, eta berarentzat Simak jolas entretenigarria baino zerbait gehiago da: lehenengo aldiz jolas honetan jolastu zuenean bere burua fikzio batean irudikatuta ikusi zuen, nahiz eta une hartan erabat ulertu ez. Helduaroan, beretzat hain garrantzitsua izan zen mundu horretan inspiratuta, bideo jokoen arloan lan egitea erabakiko du Claudiak, euren burua aurkitzeko beharra dutenei etorkizuneko gazteei lagundu nahian; baina ez da langintza erraza izango».





IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA.

Giro lasaiagoa. Goizean oraindik zeruan hodei asko egongo da eta tarteka euri zaparradaren bat edo beste izango da. Hala ere, oso gutxi botako du. Arratsaldean aterri egongo da eta arratsaldean zehar ostarate batzuk zabalduko dira, eguna nahiko giro argiarekin amaituko dugularik. Goizean mendebaldeko haizea ibiliko da, arratsaldean aldiz, ipar-haizea nagusituko da eta tenperatura jaitsi egingo da 21-22 graduan joaz goia.

LARUNBATA

Eguraldi kaskarra. Goizean goiz hodeiak ugariak izango badira ere, nahiko giro lasaia izango da. Goiz erdian ordea, fronte bat iritsiko da, zerua erabat estalirik geratuko da eta euritara joko du. Arratsaldean zehar zaparradak izango dira, non tarteka gogotik egingo duen. Gauean atertzera egingo du. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura jaitsi egingo da, 19-20 graduan joaz goia.

IGANDEA

Giro motela. Egun osoan zehar hodeiak oso ugariak izango dira eta hodei horiek tarteka euri zaparrada txiki batzuk utziko dituzte, bereziki goiz erditik aurrera eta egunaren erdiko orduetan. Gauean berriz ere atertzera egingo du. Ipar/ipar-mendebaldeko haizearen eraginpean jarraituko dugu eta tenperatura are gehiago jaitsiko da, 17-19 graduan joaz goia.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€

45€

51€

Atarikideek

12€

33€

38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

EKAINAK 24, OSTIRALA

IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24.
943 67 32 74.

EKAINAK 25, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2.
943 67 01 28.

EKAINAK 26, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Maria Jose Santamaria.
Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

EKAINAK 27, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Edurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA: TOLOSA.

LEIRE ANDRES MORANT.

ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.



Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com



R.ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Afariak
asteazkenetik larunbatera.
Bazkariak
ostiral eta larunbatetan.
Beste egunak:
kontsultatu.

GARAGARTZA BASERRIA - ADUNA- INFO@RZABALA.COM

943 69 07 74 · RZABALA.COM

Bizitzeko
**GIPUZ
KOA**



Line



Ayoon eta Max



Phil



Reyes

**5 PERTSONA
BIZIPEN**

BIZI ITZAZU!



Pablo



sariduna



Jon Maiaren
Berriak jaio ginen
liburua

Atarikideentzat **liburu bat** dugu

• Manuel Renobales (Alegia)

Liburua eskuratzeko ATARIAko bulegotik pasa



BURGERRAK
ZURE ERARA



MELEMELE.EUS 

| **TOLOSA**_RONDILLA KALEA, 8 | **ZARAUTZ**_NAFARROA ETORBIDEA, 4 |